

UIPRE-UNIBERTSITATEKO IRAKASLEAK PRESTATZEN FORMANDO AL PROFESORADO UNIVERSITARIO-FOPU

Ikastaroaren izenburua / Título del curso:

Gidatutako Unibertsitate Debatea (GUD): Ikasleengan pentsamendu kritikoa eta beste zehar gaitasunak sustatzeko estrategia aktiboa

IKASTAROAREN DATU OROKORRAK / DATOS GENERALES DEL CURSO

ECTS Kredituak / Créditos ECTS:

0,5 ECTS (5 ordu presentzial / horas presenciales + 7,5 ordu ez presentzial / horas no presenciales)

Modalitatea / Modalidad:

Presentziala / Presencial

Hasiera data / Fecha Inicio:

09/01/2025

Amaiera data / Fecha Fin:

09/01/2025

Ordutegia / Horario:

9:30-14:30

Campusa / Campus:

Gipuzkoa

Ikastegia / Centro:

Karlos Santamaria

Gela / Aula:

Se informará a las personas inscritas

Gela Birtuala / Aula virtual:

Haga clic o pulse aquí para escribir texto.

Irakaslegoa / Profesorado:

Marta Arrue Mauleon

Partaide-kopurua / Número de participantes:

14

Hizkuntza / Idioma:

Euskara / Euskera

Hartzaileak / Personas destinatarias:

EHU IRIak. Aurre baldintzarik gabe / PDI de la EHU. Sin requisitos

EHU IRIak. Aurre baldintzekin gabe / PDI de la EHU. Con requisitos

Aurre-baldintzen deskribapena / Descripción de los requisitos:

IKASTAROAREN EDUKIA / CONTENIDO DEL CURSO

Ikastaroaren deskribapena / Descripción del curso:

Irakasleek beren praktika didaktikoa etengabe berrikusi eta hobetu behar dute, eta horretarako ezinbestekoa da metodologia didaktikoak ebidentzia zientifikoan oinarritzea. Gidatutako Unibertsitate Debatea (GUD) bezalako estrategiek, Arrue et al. (2017), Arrue eta Cuesta (2020), Arrue eta Zarandona (2021), Cariñano-Ayala et al. (2022) edo Yuste et al., (2025) bezalako ikerketetan frogatu duten bezala, zehar gaitasunen eta gaitasun espezifikoaren garapena eta ikaskuntza esanguratsua sustatzen dute osasun zientzietako testuinguruetan. Hortaz, irakasleek beren jardun pedagogikoa berritzeko eta ikasleen ikaskuntza aktiboa bultzatzeko tresna eraginkor gisa har dezakete GUD.

Testuinguru horretan, tailer honen helburua da irakasleek GUD irakaskuntza-estrategia aktibo gisa ezagutzea eta beren irakasgaietan modu eraginkorrean aplikatzeko gaitasunak garatzea. Ikastaroak ikuspegi teorikoa eta praktikoa uztartzen ditu: lehen zatian GUDaren oinarri pedagogikoak eta deskribapena aztertuko dira, eta bigarrenean parte-hartzaileek simulazio baten bidez metodologia esperimentatuko dute. Ikastaroa elkarlanaren, hausnarketaren eta aplikazio praktikoaren bidez garatuko da

Ikas Emaitzak / Resultados de aprendizaje:

Ikastaroa amaitzean, parte-hartzaileek gai izango dira:

- GUDaren oinarri pedagogikoak eta aplikagarritasuna azaltzeko, ikasleen ikaskuntza aktiboa eta zehar gaitasunen garapena sustatzeko.
- GUDaren faseak identifikatzeko eta bakoitzean garatzen diren gaitasunak ulertzeko, hala nola pentsamendu kritikoa, komunikazio eraginkorra, talde-lana, konpromezu etikoa etab.
- GUDaren metodologia praktikan aplikatzeko, simulazio baten bidez.
- GUDa beren irakasgai, ikasle kopuru eta testuinguru akademikora egokitzeko, baliabide eta helburu didaktikoen arabera.
- Beren jardun didaktikoa ebidentzia zientifikoan oinarritzeko beharra identifikatzeko, ikerketa pedagogikoek eta praktika akademikoek gidatutako irakaskuntza ereduak garatuz.

Metodologia / Metodología:

1. Sarrera teorikoa (2 ordu):

- GUDaren definizioa eta ezaugarri nagusiak
- Zehar gaitasunen garapena GUD bidez: komunikazioa, etika, talde-lana
- GUDaren aplikazioaren ebidentzia zientifikoa (erizaintza arloan)
- Erizaintzako ikasgelako kasu praktiko baten analisia

2. Ariketa praktikoa (2,5 ordu):

- GUDaren faseen simulazioa: sarrera, prestaketa, debatea eta debriefing
 - Talde-lana eta argumentazioaren garapena
 - Rolak: sartailea, errefutatzaileak, ondorioztatzailea
 - Ebaluazio-irizpideen ezarpena eta erabilera

3. Itxiera eta hausnarketa (1/2 ordu):

- Feedback kolektiboa eta ikasketa esperientziaren azterketa
 Brainstorming: GUDaren aplikazioa norberaren testuinguruan

Jorratzen diren GIHak / ODS que se trabajan:

Ikastaro honek honako ODS hauekin egiten du bat:

ODS 4: Kalitatezko Hezkuntza – Ikaskuntza aktiboa eta gaitasun transbertsalen garapena sustatuz.

ODS 5: Genero Berdintasuna – Parte-hartze aktiboa eta berdintasunezko espazioak sustatuz.

ODS 17: Helburuak lortzeko aliantzak – Irakasleen arteko lankidetzeta eta ezagutza partekatzea bultzatuz.

Egitekoak / Tareas:

Ikas emaitzak Resultados de Aprendizaje	Egitekoaren deskribapena Descripción de la tarea	Aurreikusitako dedikazioa Dedicación estimada
GUDaren oinarri pedagogikoak eta aplikagarritasuna azaltzea.	GUDaren deskripzioa, helburuak eta osasun zientzietako aplikazioak azaltzen dituen saio teorikoa.	2 ordu
GUDaren metodologia praktikan aplikatzea.	GUD simulazio praktikoa: taldeetan banatuta, rolak esleituta eta debate egituratua garatuta.	2 ordu eta erdi
GUDA beren irakasgai, ikasle kopuru eta testuinguru akademikora egokitzea.	Hausnarketa eta brainstorming saioa: GUDaren egokitzapen aukerak aztertzea norberaren testuinguruan.	Ordu erdi

Ebaluazioa, akreditazioa / Evaluación, Acreditación:

Akreditazioa lortzeko, parte-hartzaileek ikastaroaren zati teorikoan parte hartu beharko dute eta debatearen simulazioan modu aktiboan aritu. Ebaluazioa autoebaluazioaren eta taldeko feedbackaren bidez egingo da.

Izena emateko epea / Plazo de inscripción:

Izena emateko epea zabalik egongo da prestakuntza-eskaintza argitaratu eta astebetera

El plazo de inscripción estará abierto una semana después de la publicación de la oferta formativa

Izena emateko baldintzak eta matrikula baliogabetzea / Condiciones de inscripción y anulación de matrícula:

Izena ematea pertsonalaren atariaren bidez egingo da.

Prestakuntza-jarduera batera joan ezin bada, 72 ordu lehenago jakinaraztea eskatzen da, plazarik gabe behin-behinean geratu den beste pertsona bati eskaintzeko. Horrela egin ezean, hurrengo UIPRE ikastaroen deialdian ezin izango da parte hartu.

La inscripción se realizará a través del portal del personal.

En caso de no poder asistir a una actividad formativa, se ruega que lo comunique con 72 horas de antelación para ofrecerlo a otra persona que ha quedado temporalmente sin plaza. En caso contrario no se podrá participar en la convocatoria de los siguientes cursos FOPU.